



1/2020 JARRAIBIDEA, URTARRILAREN 9KOA, HEZKUNTZA SAILEKO ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN SAILBURUORDEARENA, FAMILIAK EMANDAKO DIETA BEREZIEN KASUAN ESKOLA-JANTOKIEN KUOTAK KOBRATZEARI BURUZKOA.

Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzak lehenagotik badu jarraibide bat eginda, eskola-jantokiek 2019tik aurrera nola funtzionatu behar duten azaltzeko. Bada, honela dio 3.3 atalean: Antolamendu-baldintzak edo sukaldeko instalazioak direla eta, ezin badira bete menu bereziak prestatzeko bete behar diren garantiak, edo menu horiek prestatzeko gastu osagarriak ez badira ordaintzeko modukoak, aukera izango da jankideak familiak emandako menu berezia kontsumitzeko, jantoki-zerbitzuari dagokion zenbatekoa ordainduta (zirkular honetan xedatutakoaren arabera). Hori horrela izateko, familiak aurrez eskatu behar du eta, ondoren, Kudeaketa Ekonomikorako Zuzendaritzak baimendu.

Halaber, jantoki-zerbitzuaren kuotak zirkularren 7.1. atalean datoz, ez dakar, ordea, aurreko atalean jasotako baldintzetan familiak emandako menu berezia kontsumitzen duten ikasleek zenbat ordaindu behar duten. Jartzen du, hori bai, ikastetxeek ezin izango dituztela inola ere zirkularrean ezarritakoez bestelako kuotak edo kuota osagarriak ezarri.

Horregatik guztiagatik, jarraibide honen bidez ezartzen da ikastetxeko menua ematen ez zaien ikasleen kasuan, arestian jasotako arrazoiren batengatik eta familiak emandako dieta berezia kontsumitzen badute mediku-aginduz, % 50eko murrizketa aplikatuko zaiela dagokien jantoki-kuotan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilak 7